Udala hiriko hilerriak prestatzen dabil, Santu Guztien Egunerako

Polloe, Altza eta Igeldoko hilerriek garbiketa eta zaintza indartuko dituzte Santu Guztien Eguna dela-eta

Egun hauetan, Polloe, Altza eta Igeldoko udal-hilerrietan prestaketa lanetan dabiltza, azaroaren 1ean Santu Guztien Eguna dela-eta beren hildakoak oroitzera hurbilduko diren milaka pertsonei harrera egiteko. Bisitak errazteko, garbiketa-lanak areagotu dira eta zaintza- eta kontrol-lanak egingo dira ekipamendu horien inguruan.

Iñigo García Hiri Mantentzeko zinegotziak azpimarratu du garrantzitsua dela espazio horiek prestatzea, Donostiako familia askorentzat bereziki esanguratsua baita egun hori. “Egun horietan gure hilerrietara hurbiltzen direnek bisita lasaitasunez eta baldintzarik onenetan egin ahal izatea nahi dugu. Horregatik, ohiko mantentze- eta garbiketa-lanez gain, arreta berezia eskaini diegu sarbideei eta bisitarien segurtasunari”, adierazi du.

Gainera, hilerrien ohiko garbiketaz gain, sakoneko garbiketa bat egin da Polloe hilerrira sartzeko plazan, bai eta hilerriko kale nagusietako espaloietan ere”. Gainera, Udaltzaingoak zaintza- eta kontrol-lanak egingo ditu azaroaren 1ean, hilerrien inguruetan gorabeherarik sor ez dadin.

Bisitak egiteko gomendioak

Santu Guztien Egunean bertan jende-pilaketak saihestu nahi dituztenei gomendatzen zaie aurreko edo ondorengo egunetan joatea hilerrietara. Halaber, trafiko-arazoak saihesteko, garraio publikoa erabiltzea gomendatzen da, eta kontu handiz ibiltzea nitxoak, panteoiak eta hilobiak garbitzeko lanetan.

Polloek panteoiak garbitzeko zerbitzua du, adinekoentzat edo lan horiek segurtasunez egiteko zailtasunak dituztenentzat bereziki aproposa dena. Nolanahi ere, bisitari guztiei gomendatzen zaie kontu handiz ibiltzea hilobiak garbitzean erorikoak eta bestelako istripuak saihesteko.

Ordutegiak, lore-postuak eta garraio publikoa

Udal hilerrien ohiko ordutegia 08:00etatik 20:00etara da apiriletik urrira, eta 08:00etatik 19:00etara azarotik martxora.

Polloen, nitxoen eremua 8:00etatik 13:30era egongo da irekita urriaren 27an, 28an eta 29an, eta 8:00etatik 18:00etara urriaren 30etik azaroaren 1era.

Landareak eta loreak erostea errazteko, salmenta-postuak baimendu dira hilerrien inguruetan, Santu Guztien Egunera arte.

Garraio publikoan joatea gomendatzen da. Hauek dira hilerrietara doazen Dbus lineak:

- Polloe: 9., 24., 27., 41. eta 42. lineak.
- Altza: 13., 24., 27., 31. eta 38. lineak.
- Igeldo: 16. linea.

Ordutegiak eta maiztasunak www.dbus.eus webgunean kontsulta daitezke.

Musika, bisita gidatuak eta erlijio-ekitaldiak

Heriotzari bizia ematen jaialdiaren VII. edizioa dela eta, Polloen *Isiltasunak afinatzen, Afinando silencios* ekimena egingo da azaroaren 1ean. Ekimen hori BIDEGINek (Doluari laguntzeko Gipuzkoako elkarteak) antolatu du, Donostia Lagunkoiaren eta Donostiako Udaleko Osasuna Sustatzeko Atalaren laguntzarekin.

12:00ak eta 14:00ak bitartean, hilerriko hainbat tokitan musika-akonpainamenduak egingo dira, hildakoak gogoratzeko eta bisitatzera joaten direnei laguntzeko. Informazio gehiago helbide honetan: www.dandovidaalamuerte.org.

Erlijio-programazioari dagokionez, azaroaren 1ean, 13:15ean, meza bat egingo da Polloeko kaperan. Hurrengo egunean, azaroaren 2an, Hildakoen Egunean, beste meza bat egingo da 12:00etan, Altzako hilerrian, beilatokiaren ondoan.

Gainera, Polloeko hilerrira bisita gidatuak egiten jarraitzen dute, hilerriaren historia, arte-ondarea eta bitxikeriak ezagutzeko. Polloeko sekretuak hezkuntza-ekimena ere mantentzen da, 10 eta 14 urte bitarteko ikasleei zuzendua, Oh My Walk enpresarekin lankidetzan.

Enpresa horrek berak azaroaren 1ean, 19:45ean, *Polloeren sekretuak,* Arimen Eguneko irteera berezia antolatuko du: gaueko bisita bat izango da, data horiei lotutako tradizioak jorratzen dituen kultura-ibilbide gidatu bat. Informazioa eta erreserbak hemen daude eskuragarri: www.ohmywalk.com.

Zappino kaperaren jatorrizko egoera berreskuratu da

Zenbait hilabetez zaharberritu ondoren, Polloeko Zappino kapera bere jatorrizko egoeran da berriro. Zaharberritze-jarduketa horrek sari bat jaso zuen ekainean, Udal Ehorztetxe eta Hilerrien Elkarteak (Asociación Nacional de Entidades y

Empresas Municipales de Servicios Funerarios y de Cementerios - AFCM) antolatutako Hilerri eta Hileta-zerbitzu Publikoen Berrikuntzarako Sarien lehen edizioan, hileten ondare artistiko eta arkitektonikoaren kategorian.

Polloek hileta-ondare kultural, artistiko eta arkitektonikoaren kudeaketan eta kontserbazioan egindako lana nabarmendu zuen epaimahaiak. Kaperak estilo neogotikoa du, 1910ean eraiki zen, eta kareharri gris eta arrosazko elementuak ditu, marmola, ate forjatu bat eta Maumejean Hermanos enpresaren beirateak.